# Konpromisoen Gutuna

prestakuntza osoa

publikoa

kalitatezkoa

hurbila

baloreak

berrikuntza

kalitatezkoa

etorkizuna

hobekuntza

doakoa

berrikuntza

kalitatezko

ITURRAMA BHI

ITURRAMA BHI

## nor gara?

Baloreak oinarri dituen kalitatezko hezkuntza eta inguruarekin errespetua bermatzen dituen ikastetxe publikoa. Oso irakasleria aditua dugu. Gainera, gizartearen nahi eta beharrak kontuan hartzen dituen hezkuntza eskaintza daukagu.

## zer nahi dugu?

Ikastetxe lasaia, alaia eta abegikorra, ideia guztiak errespetatzen dituena eta aniztasunean elkarbizitzen irakasten duena. Gizartean errotua eta aldi berean honen eragilea.

**Gure helburuen artean honako hauek ditugu:**

- Ikasle autonomo eta dinamikoak izaten bideratu, laguntzeko prest daudenak.
- Elkarbizitza, pertsonekiko errespetua, elkartasuna, bereizkeria eza, aukera berdintasuna eta integrazioa landu.
- Taldelana eta etengabeko hobekuntza bultzatu. Ongi egindako lana aintzat hartu.
- Sormena, espiritu kritikoa, norberaren autonomia zein adimen-autonomia bultzatu.
- Ingurua eta ingurunea zaintzen dela bermatu.
- Gure ikasleei ezagutza eta kultura maila zabala beregana ditzaten lagundu, honek arrakasta eskolan, goi mailako ikasketetako sarbidea eta gizarteratzea ekarriko dizkielakoan. Horretarako beharrezkoak diren jarrera baikorra eta ahalegina indartuko ditugu.
- Euskara maila handia lortu eta euskal kultura bultzatu.
- Ikasleak gutxienez hiru hizkuntzatan komunikatzeko gai izan daitezen erdietsi.



## zein zerbitzu ematen dugu?

**Kalitatezko hezkuntza euskaraz eta doan; hezkuntza-eskaintza honako hau dugu:**

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza euskaraz (D ereduan).
  - Aniztasunari arreta emateko neurriak lehenengo zikloan eta dibertsifikazio kurrikularra hirugarren eta laugarren mailetan.
- Batxilergoa hiru modalitatetan:
  - Zientziak eta Teknologia.
  - Giza eta Gizarte Zientziak.
  - Arteak: Arte plastikoak, diseinu eta irudia (eskaintza hau duen ikastetxe bakarra Nafarroan).

**Planak eta proiektuak**

- Elkarbizitza plana.
- Hutsaratze eta segurtasun plana.
- Ingurugiroarekin konpromisoa. Ikastetxeko energia plana.
- Beste ikastetxeekin elkartrukeak.
- Irakurmena bultzatzeko plana.
- Osasuna Sustatzeko Eskola Sareak jorratzen dituen osasun azturak hedatzeko programa.
- Udalarekin lankidetza: Sormen tailerrak.
- Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak .
- Antzerki tailerra euskaraz.
- Berrikuntza proiektuak: EJE (Europako Gazte Enpresa), Gogoan (ahoz ahoko jabetza), teknologia berriak eta hezkuntza...
- Kalitatearen kudeaketa: ISO ziurtagiria eta EFQM bikaintasunaren errekonozimendua.

**Oinarrizko zerbitzuak**

- Orientazio Departamentua: akademikoa, familiarra eta profesionala.
- Ikasteko zailtasunak dituztenei erantzuteko antolaketa neurriak (hezkuntza indargarria, bikoizketak...) eta irakasle espezialistak.
- Urrutiko Hizkuntza Eskolako titulazioa ikastetxean bertan bideratua hiru hizkuntzatan: euskara, ingelesa eta frantsesa.
- Tutorearen banakako arreta ikasleei zein familiei.
- Gertakizun eta ezetortzeen eguneroko jarraipena; familiari komunikazio puntuala.
- Dokumentazioa bideratzea eta honen kudeaketa: tituluak, baliozkotzeak, ziurtagiriak eta matrikulen lekualdatzea.
- Beka eta ikasketetarako diru laguntzei buruzko informazioa eta bideratzea.
- Gazte informazioa Ikastetxeko berriemaileen bidez.

**Instalazioak**

- Kirol pistak eta soinketa lekua.
- Liburutegia: irakurtzeko eta maileguak emateko zerbitzua, interneterako sarbidea duten ordenagailuak.
- Gela bereziak: teknologia, plastika, bolumena, marrazketa, informatika, zientzia laborategiak, ikusentzunezkoa, musika gela...
- Erabilera anitzeko aretoa.
- Interneten sartzeko Wi-Fi sarea ikastetxe osoan.
- Sarbide egokituak eta igogailua ezinduendako.



berrikuntza baloreak

## Konpromisoak eta adierazleak

Iturrama institutua etengabeko hobekuntzaren esparruan eskola komunitateari zerbitzu ona eskaintzen ahalegintzen da. Honen inguruan ondoko alorrak bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, adierazleen jarraipena eta kontrola aldiro egiten dugularik.

| | konpromisoak | adierazleak |
|---|---|---|
| 1. | Bermatutako Kalitate Kudeaketa sistema baten bidez modu eraginkorrean ikastetxea kudeatzea. | ISO 9001:2000 agiria, EFQM zigilua eta Nafarroako Gobernuaren "Ikastetxe Bikaina" (Kalitatearen kudeaketa sistema, 230/2006 ebazpena) errekonozimendua mantentzea. |
| 2. | Matrikula eraginkortasunez eta pertsonalki bideratzea. | Ikastetxera etorri gabe matrikula betetzen duen familien portzentaia. |
| 3. | Iradokizunak, kexak eta zoriontzeak kudeatzea. | Aurkeztutako IKZtatik %90i aste beteko epean erantzuna ematea. (5 lanegun)<br>Ikasturtean zehar hobekuntza ekintzaren bat sortu duen IKZ zenbatekoa |
| 4 . | Familiekin Informazio eta Komunikazio Teknologien bidez hartuemanak ahalbidetzea. | Interneten bidez eskainitako zerbitzuen zenbatekoa.<br>Ikastetxeko web guneko bisiten kopurua. |
| 5. | Elkarbizitzari buruzko arauak onartuz, errespetu eta lan-giro egokiaren alde jokatzea. | Gorabehera, hutsegite eta puntualtasun parterik ez duen ikasleen portzentaia.<br>Diziplina hutsegiteen komunikazioa 48 orduko epean.<br>Langile eta ikasleriaren gogobetetze maila. |
| 6. | Ikasleei kalitatezko prestakuntza ematea. | Hartutako prestakuntzari buruzko ikasleriaren gogobetetze maila.<br>Ikastetxearekin gustura dagoen familien portzentaia. |
| 7. | Ikasleriaren ebaluazioan, metodo homogeneo eta gardenaren erabilera bermatzea. | Irakasle guztiek kalifikazio irizpideak idatziz ematea.<br>Ikasturtean zehar, kalifikazio irizpideen ezartzearen jarraipena egiten duen Departamentuen ehunekoa. |
| 8. | Ezagutzaren transmisioan teknologia berrien zentzuzko erabilera bultzatzea. | Gelako jardueretan teknologia berriak erabiltzen dituen irakasgaien %koa.<br>Ordenagailu bakoitzeko ikasle kopurua. |
| 9. | Ikastetxearen beharren arabera, irakasleriaren etengabeko prestakuntza bermatzea. | Ikastetxeko langileriak egindako eta ondoren egiaztatutako prestakuntza orduen batez bestekoa. (Gutxienez 50h)<br>Ikastetxeak antolatutako prestakuntza ekintzak burutzen dituzten irakasleen portzentaia |
| 10. | Maila guztietan ikasketa-emaitza onak lortzea. | Hurrengo mailara igarotzen diren ikasleen %koa, matrikulatutako ikasleen artetik.<br>Selektibitatea gainditu duten ikasleen % koa aurkeztutakoen artetik . |

| | konpromisoak | adierazleak |
|---|---|---|
| 11. | Hizkuntza agiri ofizialak lortzen laguntzea (NUHEOko frogak prestatu, bideratu eta azterketak ikastetxean egin): Euskara, ingeles eta frantses departamentuak. | Matrikulen %koa, ikasle guztien artetik.<br>Gainditu dutenen %koa aurkeztutakoen artetik . |
| 12. | Norberari egokitutako orientazio eta tutoretza eskaintzea. | Kurtsoan zehar egindako tutore-familia elkarrizketa pertsonalen zenbatekoa, etapen araberakoa. |
| 13. | Atxikitutako ikastetxeetako familiei eta ikasleei ikastetxea aurkeztea edo erakustea. | Ate irekietako jardunaldietan atxikitutako ikastetxeen %100. |
| 14. | Baliabideak era arduratsuan eta ingurugiroari lotuak erabiltzen bultzatzea. | Ikastetxeko jarduera guztietan paper birziklatua soilik erabiltzea.<br>Energia kontsumoa %1 jaistea. |
| 15. | Irakaskuntza-ikaskuntza gako zerbitzua bermez ematea. | Programatutako saioetatik gutxienez %90 ematea.<br>Irakasgai guztietatik gutxienez %90ek unitate didaktiko guztiak ematea. |

## konpromisoak betetzeko bermeak

- Helburuak ez betetzekotan, ikastetxeak badu dagozkion konponketa ekintzak hartzeko estandarizatutako prozedura.





## zerbitzuaren erabilera arduratsua

**Eskubideak**

- Ikastetxeko bizitzan aktiboki parte hartu eta hobekuntza proposamenak egitea.
- Institutuan egiten diren jardueren inguruko informazio argia, erabilgarria eta sinesgarria jasotzea.
- Gaitasun eta beharren araberako hezkuntza bereganatzea.
- Portaeran eta eskola emaitzetan berdintasunez baloratua izatea.
- Datu eta informazioa pertsonalak isilpean gordetzen direla bermatzea.

**Betebeharrak**

- Hezkuntza komunitateko partaide guztiak errespetatzea.
- Ikastetxeko instalazioak zaintzea.
- Klasera egunero eta garaiz agertzea.
- Institutuak eskaintzen dituen prestakunza aukera guziez baliatzea.
- Ikasketetan ahalegindu eta lan ohiturak garatzea.
- Seme-alaben ikasketetan familien parte hartzea.



## komunikazio bideak

**Iradokizunak eta kexak egiteko eta zorientzeko kutxatila**

- Aurkezpena: pertsonalki tutoreari, ikastetxeko iradokizun kutxan darabilgun inprimakiaren bitartez, posta elektronikoa edo Web orriko tresna erabiliz.
- Inprimakiak bideratzea: zuzendaritza taldeak idatzitako erantzunaren bidez.
- Erantzunarekin ados ez izatekotan, Hezkuntza Saileko Ikuskaritza Zerbitzuaren bitartez.

**Parte hartzeko bideak**

- Kide anitzeko organoak: Eskola Batzordea.
- Batzordeak: eskolaz kanpokoak, ekonomikoa...
- Gogobetetze inkestak.
- Gurasoen elkartea.
- Ikasleen Ordezkarien Batzarra.

**Hartu-emanetarako bideak**

- Eskola komunitateari irekia dagoen zuzendaritza taldea: ahoz nahiz idatziz.
- Tutoreekin, irakasleekin zein orientazio zerbitzuarekin banakako elkarrizketak.
- Informazio akademikoa EDUCA kudeaketa programaren bitartez.
- Gutunaren adierazleen emaitza:
  - Aldiro ikastetxeko web orriaren bidez.
  - Institutuko Gurasoen esku-liburuaren bitartez.



## non gaude?




### LORPENAK ERDIETSITAKOAK

ISO 9001 Zertifikazioa, 2004tik aurrera urtero berritua

EFQM Bikaintasun Zigilua: Europako Bikaintasun Konpromisoa 2002an eta Europako Bikaintasuna 300+ puntu 2003an.

Ikastetxe Bikaina Nafarroako Hezkuntza Sailak emana 2007an.



- ITURRAMA BHIko ordutegia:
- Eskola egunetan institutua 7:45etatik 19:30 arte dago zabalik, opor egunetan 9:00etatik 14:00 arte
- Bulegoko ordutegia: 9:00etatik 14:00 arte

- Serafin Olave 16, 31007 **IRUÑEA**
- Tfnoa: 948-198657
- FAXa: 948-198281
- Webgunea: **http://www.pnte.cfnavarra.es/iesiturr**
- Posta elektronikoa: **ies.iturrama@pnte.cfnavarra.es**

- Garraio publikoz: 1., 2. eta 19. autobus zenbakiak ondoan eta 4., 5., 11., 15. eta 16.ak hurbil
- Autoa uzteko: OTA inguru osoan

Etengabeko hobekuntzak gidaturik taldean lan egiten dugu, hasiera batean ADIk (Nafarroako Institutuetako Zuzendarien Batzarra) bultzaturiko ikastetxe sareetan. Gutun honen edizioa Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak sustatu duen kalitatearen kudeaketa sistemak hedatzeko programaren inguruan egin da, 230/2006 ebazpenaren arabera. Ondorengo ikastetxe hauen artean egin da elkarlanean: Donapea, ETI, Iturrama, Julio Caro Baroja-La Granja, Navarro Villoslada, Plaza de la Cruz, Politécnico Tafalla, San Juan-Donibane, Toki Ona eta Valle del Ebro.

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Gobierno de Navarra
Departamento de Educación

Calidad institutos de Navarra
Kalitatea Nafarroako institutuetan
KADINET

publikoa hurbila baloreak kalitatezkoa berrikuntza etorkizuna hobekuntza doakoa prestakuntza osoa kalitatezkoa kalitatea publikoa

ITURRAMA BHI


- Serafín Olave 16, 31007 **IRUÑEA**
- Tfnoa: 948-198657
- Faxa: 948-198281
- Webgunea: **http://www.pnte.cfnavarra.es/iesiturr**
- Posta elektronikoa: **ies.iturrama@pnte.cfnavarra.es**


Edición junio 2007 / 2007ko ekainean argitaratua